

...eta kitto!

EIBARKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA

“HEROINAZALEARI LUR JOTZEN «LAGUNDU» BEHAR ZAIO AKOSATUZ” «PROYECTO-HOMBRE» EDO GIZAKIA HELBURU-KOekin HITZEGITEN

Lehenengo fasea, harre-
ra-etxea: Neska-mutilak ez
daude denbora guztian etxe
hortan, bakoitzak bere etxetik
joan etorriak egiten ditu. Harre-
ra-etxera. Harrera-etxe hau Do-
nostian dago. Batez ere informa-
zioa ematen zaie, eta ondoren el-
karrizketak hasten dira heroino-
mano eta bere familiarekin. Tal-
deetan parte hartzeko drogatu
gabe etorri behar dira, droga sin-
dromearen aurrean naturalki pa-
satzea animatzen dituzte. Baina
azken batean hori bakoitzak ikusi
behar du. Gizakia Helburukoek
ez dute inongo agindurik ematen
puntu honetan.

Hurrengo pausua komunita-
tean bizitzea izango da. Hernanin
etxe handi bat dute, gaur egun
75 bat gazte bizi dira, etxetik ir-
ten gabe egoten dira. Etxea mar-
txan izateko beharrezko lanak
egiten dituzte eta baita terapia la-
na. Taldeko lan asko egiten du-
te, batez ere emotibitatea edo
sentimentuak, jokaera eta norbe-
taren historia lantzen dira. Fun-
tsezko helburua norberak bere
burua ezagutzea lirateke. Eta ko-
munitatean batzartze bakoitzeko 10 hila-
bete egiten dituzte.

Hirugarren fasea Errenderin
izaten da. Fase honetan bir-gizar-
teratze edo reinserzioa posibilita-
tzen da. Neska-mutilak kalera be-
gira ipintzen dira, eta beren egoe-
ra normalizatzeko azken pausua
ematen dituzte. Harreman berriak
egin behar dituzte, lana aur-
kitu edo ikasketak jarraitu... gau-
za asko izaten dira. Programa
guztia bukatu dutenak 58 gazte
dira, eta bakarrik 2 pertsona
buelatu dira heroinaren mundu-
ra. Baina oraindik ez dira por-
tzentaiak atera, oso goiz da ho-
rretarako. Programa bukatu
aurretik %18-ak uzten du, baina
gero bueltatzen dira eta berriz le-
henengo faseatik hasten dira.

Neska-mutilak Gizakia Helburu
edo antzeko erakunde batera
hurbiltzen direnean droga utzi
nahi dute, zeren heroinak azken
finean bizitzeko arlo guztietan
arazoak suposatzen dizkie. Teori-
koki droga utzi nahi dute, baina
heroina beralek baino boteretsua-
goa da. Heroinomano bati lur jo-
tzen «lagundu» behar zaio, horre-
la ikusiko du guztiz akosatua da-
goela eta ezin duela sustantzia
«miresgarri» horrekin jarraitu. Gi-
zakia Helburu-ra normalki hiru
arrazoiengaitik etortzen dira: Fa-
miliak azken aukera bezala ikus-
ten duelako, justiziarekin arazo
larritan sartuta egotea eta norbe-
ra fisikoki oso motelak ikustea
dela motibo nagusiak.

Eibarren lehenengo fasean
ematen diren hasierako 2 pau-
sua jarraitu nahi dira. Informa-
zio zehatz bat eskaini eta talde-

pasatu aurretik izaten diren lehe-
nengo elkarrizketak. Gizakia Hel-
buruan garrantzi handia ematen
zaio familiari eta berezko ingu-
ruari. Seme-alaba marixan da-
goenean ere bi eratako elkarriz-
ketak egiten dituzte. Alde batetik
seme-alaba toxikomanoari buruz
hitzegeiten da eta bestetik familiak
ere bere artean elkarrizketak iza-
ten ditu, heroinomanoa pertsona
bezala gizartean berriro onartze-
ko, lehenik eta behin bere bu-
ruak ere pertsona bezala berriku-
si behar dituzte, gurasoak zentru-
ra azaltzen direnean guztiz galdu-
ta aurkitzen dira, seme-alaben
antzera.

Gizakia Helburu erakundearen
HISTORIA Estatu Batuetan sortu
ziren zenbait komunitateetan
ikus ditzakegu. Baina benetako
hasiera Italian kokatu dezakegu,
Erroman hain zuzen ere. Erro-
man gaur egun Euskal Herrian
jarraitzen diren ardatz nagusiak
osatu ziren orain dela hamabi bat
urte. Eta Euskal Herrian duela 10
urte droga arazoa larriagotzen
hasi zenean jende talde batek Gi-
zakia Helburua gorpuzteko lehe-
nengo pausok eman zituen.
Hauen artean Inaki Aldabalde
aipa dezakegu. Erromako espe-
rientzia ezagutzen zuten eta bai-
korra zela pentsatu zutenean an-
tolakuntzari hasiera eman zioten.
Eta orain arte... Lan urtean 300
bat gazte pasatu izan dira Gizakia
Helburutik. Metodoa nahiz eta
nahiko gogorra izan, emaitzak
oso onak dira.

Hona hemen hitz gubatan BA-
LIABIDEAK ETA FILOSOFIA.

Gizakia Helburuko ardatz nagu-
siak eta filosofia: Zentru pribatu
da, baina programa guztia dohan
da. Diru partida garrantzitsu bat
administratibetik lortzen da
(Madriletik eta Diputazioetik), ho-
nek presupuestoaren %10-urteko
presupuesto 95 milioi eta 200
%35a suposatzen du. Gainerako
diru guztia bide ezberdinetatik
lortzen da: Bankuak, lantegiak,
udaletxeak, eta bakarkako diru
laguntzak. Gizakia Helburuan dro-
garen arazoa ez dela bakarrik
pertsonarena uste dute, orduan
gizartea ere arduratu behar da
guztiz honetaz, diru laguntza esti-
magarria da baina, bakarrik pau-
su txiki bat suposatzen du.

Programaren hiru ideia fun-
tsezkoenak hauek dira: justu dro-
gazale bati itala zaizkion bato-
reak: erresponsabilitatea, honesti-
tatea eta solidaritatea. Programa
guztiz epolitikoa eta akonfesiona-
la da. Normalean Gizakia Helburu-
ra iristen diren pertsonak defori-
paso egiten diote. Hala ere gizar-
tearekiko oso kritikoa suerta-
tzen dira. Programari garrantzi-
koa da bere partehartzea, be-
raien protagonismoa. Bete bu-
ruak sendatzeko bere ahalmenak
potentziatu behar dituzte, heroi-
nomano bakoitzean aurkitzen di-
ren ahalmenak. Toxikomanoak
zailtasunaren aurrean ez du irten-
biderik ikusten, galduta ikusten
da. Gizakia Helburukoak zailta-
su hauek gainditzera animatzen
dituzte.

Gaur egun Gipuzkoan lau eta-
lunde desberdin arri dira droga
arazoan lanean: Asteagutza, Gi-
zakia Helburu, Drogak Eraginda
ko Elkarte (D.E.E.) eta AGIPAD.

Donostiatik Felix eta
Maite, «Proyecto hom-
bre» edo Gizakia Helbu-
ru-ko bi arduradun, Eiba-
rrera etorri dira Udaleko
Gizarte-Ongizate Saile-
koekin akordio batetara
iristeko hemen zentru
bat ipini ahal izateko,
baina Gizakia Helburuk
arrazoi askogatik ezin du
harrera-etxea Eibarren
antolatu. Hala ere beste
gauza batzuk aurrera
eramaten saiatuko dira.



imigas
Markina bidean z/g
ERMUA (BIZKAIA)
Tlfn: 943-170700-04
170597
FAX 172267

- Berugailu eta osasunerako ur beroa.
- Sukaldeak; ikatza, egurra, berogailua+ acs.
- Beheko-suak, txiniak.
- Berogailu-galdarak; gas-oil, gasa, electrikoak.
- Termoak, ur berogailuak, radiadoreak.

Ford **KONDIA, S.A.**
Zatoz **“FIESTA”** BERRIA Ikustera
E IBAR

ESKOLARTEKO ANTZERKIA: EUSKARA NAGUSI

Apirilaren 24an hasi eta Maiatzaren 22an bukatzen den V. Edizio honetan, 14 ikastetxe inguruk parte hartuko dute, 23 antzerki-lanetik guztira.

Euskara-erdera proportzioari dagokionez, Txemaren ustetan «antzerki ihardunaldiak, eskolarteko antzerkiaren erakusketa eta «Narruzko Zezen» sariak, euskarak praktikan nola funtzionatzen duen jakiteko termometroak dira, azken finean hauek euskaraz espresatzeko aukerak bait dira».

Ihaz 24 lan prestatu ziren guztira: hauetariko 8 euskaraz, eta beste guztiak erderaz. Aurten, alderantzizko fenomenua dugu, 8 erdaraz eta beste guztiak euskaraz, alegia.

V. Edizio honetan umeez talde hauek ikusteko aukera izango dute, lehenengo biek euskarazko errepresantzioak, eta beste biek erderazkoak aurkeztuko dituztelarik: «TAUPADA» (Elgoibar), «TEATRO GASTEIZ» (Gasteiz), «ETERNO PARAISO» (Gasteiz) eta «LA QUIMERA DE PLASTICO» (Valladolid).

Beraz, guzti honen helburua, antzerkiarekiko interesa sortzea, eta irakaskuntzaren barne antzerkia beste ekintza bat gehiago bezala funtzionatzea litzateke, modu honetan heziketa akademikoak heziketa kultural batekin osa dadin.

Bestalde, Txema Cornagok irakasleek burutzen duten izugarritzko lana azpimarratu zuen behin eta berrero; eta nahiz eta zentru bakoitza beti estimulatu nahi izan den diru-kopuru bat emanez, hau beti ezinezkoa izan dela zioen, aurrekontua ez bait da inoiz heltzen.

Eskolarteko antzerkiaren erakusketa, marioneten nazioarteko jaialdia, antzerki artikuloentzako «Narruzko Zezen» Sariak eta Eibarko Aantzerki Ihardunaldiekin batera, Unibertsitate Laborealean antolatzen den laugarren ekintza da, antzerkiari dagokionez.

Jakina den bezala, Antzerki Ihardunaldiak 1977. urtean jaio ziren. Garai hartako krisialdia industrialak oso gogor astindu zuen gizarte guztia, krisi honek baita kulturarekiko ere nolabaiteko interes eza sortu zuen. Beraz, garai latz haietan eman zitzairen hasiera orain hain arrakastatsuak diren antzerki ihardunaldiei.

Eskolarteko Antzerki Erakusketa jaiotza eta helburuei buruz honako hau zioen Hezkuntza Komplexuko zuzendari administratiboa den Txema Cornagok: «Orain dela 5 urte ohartu ginen oinarritzko-lan baten garrantziaz. Edozein kiroletan bezala, beharrezkoa da «kantera» bat sortzea, baina kasu honetan ez aktoreen kantera, ikusleena baino. Eta hau lortzeko modu egokiena O.H.O.ko ikasleekin lan egiten hastea da. Beraz, horrela jaio zen Deba Beheko Eskolarteko Antzerkiaren Erakusketa».

Eskolarteko antzerki erakusketa



honetara Deba Beheko ikastetxe guztiak gonbidatzen dira. Dena den, ez da ekintza extra-eskolar bat. Garrantzitsuena da matematika, zientziak... ikasten diren bezala, antzerkia egiten eta ikusten irakastea. Antzerki-lan bat prestatzeko lan kolektibo bat egitea suposatzen du, zeinetan hizkuntzan, gramatika, historian, plastikan... lan egiten den.

SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno, hori ala bada eta AYERBE LIBURUDENDAK oparitu-koto dituen liburak irabazi nahi badituzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsoneko bat onartuko da bakarrik) helbide honetara hilaren 15a baino lehen, zeure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA EUSKARA ZERBITZUA
«...eta kitto!» Sariketa.

4.— Aleko sariketaren erantzuna «Makazkua kalean dagoen iturria da, (Abontza)»— zen. Guztira 25 erantzun zuzen jaso ditugu eta irabazlea IKER BARBARRUBIO CORTIJO, J. Gisasola Kalean bizi dena.



AYERBE LIBURUDENDA

EUSKARAZ

- Animalien bizitza
- Xanti eta Ane itxas-azpian
- Neskazale gazte baten balentriak
- Kleto eta Talem

LIBURU SALDUENAK APIRILEAN

ERDARAZ

- El general en su laberinto
- La ansiedad
- La felicidad
- En la penumbra

IRAKURLEAREN TXOKOA

“H.B. ETA GARBITASUNA”

Azken hilebetean H.B.ek Ingurugiro Saitetik umeei zuzendutako «Garbitasun kanpaina» egin du. Horretarako bisera, txapelak, boligrafoak, dadoak eta pegatinak banatu ditu umeen artean.

Baina gauzarik garrantzitsuena, inportanteena ahaztu zaie banatzea: EJEMPLUA hain zuzen ere.

Eibarren, askotan agertzen dira zuen panfletoak (edo zuen inguruan dabilzan taldeetakoak) lurrean zehar.

Ormak ere, gehien zikintzen dituzuenok zuek zarete (edo zuen ingurukoak), paperez josita dituzue. Zergatik ari zarete atzeratzen Gobernu Batzordearen agindua bete gabe Ormen garbitasunari buruzko Ordenantza hainbeste denbora? Ez da izango zuek duzuelako arazo handiena era hontako ordenantza bat betzeko?

Ekologisten artean ere zuek zarete jatorrenak betidanikoak, baina barrikadak egiteko zilegi duzue zuhaitzak botatzea. Adibide gisa hor duzue Ataungo gertakizuna.

Beraz, garbitasun kanpaina egitea nahi baduzue, has zaitetzte zuen inguruetik eta ziur egon zaitetzte gure hiria askoz garbiagoa egongo dela.

JON GARAIZABAL

EIBARKO HISTORIARI BURUZ LANTXO BAT

Gauza interesgarri batzuk ikasi ditugulakoan, aldizkari horren bidez zuei kontatzea erabaki dugu.

Badakizue zein gaitzizen duen Azitain Elizako ama birjinak? «La Mundana» Zergatik? Emakume arruntaren arropaz jantzia dagoelako (ez ohizkoa den bezala erreginaren arropaz eta baita ere bere buruan ohizko koroien orde, buruzapia daramalako).

Badakizue lintzian arratzaleek Arrate Elizako osteko hormak, urtero txuriz pintatzen zituztela? Bada horrela zen. Zergatik? Horma txuriak gida bezala erabiltzen zituztelako enbata egun gogorretan.

Badakizue Unzetako jauregian (gaurko La Sañen), bi pasadizu sekretu daudela, bata errekaruntz jotzen duena eta besteak Azitaingo elizara? Zertarako? Guda kasuetan Unzetako jauntxoek ihes egin ahal izateko.

Badakizue zer dagoen Azitaingo elizaren altare azpian? Errekako harriz egindako larrosa eder bat.

Oraingoan nahiko klerikala atera bazaigu ere, hurrengoan saiatuko gara beste gauza batzuk kontatzen.

AEK-ko 4. urratsekoak

“...eta Kitto!”



Pozik irakurtzen dugu zuen hilabetekaria.

Gustatuko litzaiguke orrialde gehiago izatea. Elkarrizketa gehiago nahi genuke, eta hitz zailak orrialdeen behelaldean argitzea. Eibarko kirolek ere beren tarte izan behar dutela uste dugu. Noizbehinka beldurrezko edo Fernando Amezketarraren pasadizoen bat sartzea polita izango litzateke. Halaber hilean zehar gertatu diren berririk garrantzitsuenen laburpena ezagutzeko gustatuko litzaiguke. Besterik gabe, agur.

UNIBERTSITATE LABORALEKO 3. BUPEKO TALDE BAT

ERREDAKZIOAREN OHARRA: Gure lana babestuz eta animatuz diharduzuenoi mlla esker. Hortik aparte esan behar, zeun aldetik ideia edo kolaboratzeko gogorik badaukazue, zuzendu zaitetzte geuregana. Hori da «... eta kitto!» geurea den eta izan behar duen topalekua hildo hauetatik mantentzeko modua.

KOMIKIA



CANDIDO EGUREN:

Eiñ eiñ bihar dok. Nahixak bakarrik eztau balio
Alkartasuna bihar da

Candidok esan doskunez ipuin asko pasatakua da bera: reboluziñua, republika, gerria, kanporantzia ta... 30 urte erbestian izandakua dogu, Frantzian izan zan aurretik 6 urte kartzelan pasau ta hiru urtian pena «de muerte»ko amenazuakin egonda. Frantzian eiñ zitxuan lanak alde guztitakuak: barrenderuekin ta... zuluak eitxen eh... zerian...kalietan ta...konstruziñuan ta gero tallerretan ta...almazenetan ta... en fin: ibillerra edarra!



— Kanbixoa haundixa topau dozu Eibar?

«Bai, eh...nik ikusi nebanetik, treinta y cuatrotik esan leike urten izan dotela Eibartik, ta...handik hona ba...kanbixoa haundixa ikusi dot!!; ez bakarrik pertsonak...ze...nik, ixa eh...larena be eztoz ezautu Eibarren etorri naitzen hona; ta ostian eh...kaliak eta, ba...erakutsi eiñ bihar nun ibili bihar nintzan, enekixan nun ibilli...galduta zeuan gure Eibar-kua».

— Liburuzalia zarala entzun dogu, irakurtzia bakarrik ala idatzia be gusatzen jatzu?

«Bastante irakurri izan dot, hori irakurri ez nere efiziño haundixa. Idatzia ez, neuk ezta hori zerori; batzuk esaten dabe idatzi eiñ bihar dala bestiei be erakusteko...bainā...guk ikasi dogunagaitzik bestien memorixetatik gauzarik esan leike, nik gehixen ikasi doten modua, liburuetan bainā...bizi izaten, bizimoduan ikasi dot gehixen».

— Ta euskerian arluan Eibarren zer ikusten dozu?

«Ba hamen eh..., Eibarren orduan gure denporan eh...nik eh... ofiziñan be, kalia be, etxian be...euskaraz».

Gero kanpotarra etorri zanian, 1914ean etorritako jendiak euskeraz gaiztua ikasi eben, harek etorritzen zanian erdara eitxen genduan, bainā harek juaten zanian geure artian euskeraz beti. Behin pasau jakun eh...hiru bagoiazan zinera ta bat eh... erdalduna zan, naparra bainā erdalduna, ta bestioak Eibarkuak bixok; ta eki etzaun zineko kritika bat eitxen ta erderaz eki etzaun; bainā gero berotasunian euskerara pasau giñazen ta naparrak esaozkun: —nik etxuat ezer aitzen—. Bainā urtean ezta neri: hi!!; txotxo!!; hik ondo eiñ dok asarratziat ez dok ulertzen ta gure euskeria, bainā...ikusioak ze modutan ibili gaitxuan euskeraz ta...horrek parkatzia be badaukak, eh?; bainā nik eh bajaukat hiri esateko: hik badaroiak hamen 6 edo 8

bat urte ta... orduantxe gelditxu zan hori zerori: euskeria len eguneroko hitza zan. 1914an etorri zianako asimilau genduzan, bainā azkeneguak eztoz lelekuak asimilautako moduan asimilau ta heurak gehixau dia oiñ momentuan gu bainā».

— Irakurri dittu aurreko «...eta kitto!»-ak?

«Bai...ba batek mendixan ta beran zerak kontatzeitxu, bestiak musikia ta... nik politika asuntua ta... eztoz nahi hor asuntuan sartzerik ze norbera burua etara bihar da aurrera ta politika asuntuan beste berba batzuk gehitxia ura-uran gainian botatzia da».

ko preparata industrialmente ta teknikamente. Beste herri batzuk igotzen juango balitzakez, Estados Unidos ta... gu haren arrastrian juango giñakez igotzen bainā... krisisa dao.

Ez bakarrik diruan krisisa, krisis tekniko batean gaizta ondioko sektore terziarioan, ondibizitak, jentia eztao formata... gora doiaz bainā... Frantzia, Estados Unidos edo Alemaniako mailara alleatzeko ondiokan asko falta jaku.

Gaurko produziñorako, zibilizatutako naziñuen merkaua txikitxu eiñ da, ta hori mekauori zabaldu eiñ bihar da, ta hori zabal-

Mondragoien hartu daben moduan, geuk hartu bihar dogu erresponsabilidadia, geuretako eiñ biharra eta geuretako irabazi, horretarako hoixe preparaziñori bihar dogu eta sakrifizio hori, ze... koperatibak eitxeko han sakrifiku eiñ behar izanten da: estatuan laguntzak be egongo dira bainā marxan ipintzeko dirua jarri bihar dabe soziuek. Gaur pasatzen dana da kapital gehixau bihar dala».

— Eragiñik euki dau hamengo inbersiñuetan bertako egoerak?

«Leku baten, nahi dan lekuan izan, polo nortian edo surrian, bakia bihar da, bakeik ez badao han lana ezin leike trunkil eiñ ta han bere prozesua industriak ezin leike bihar dan moduan eiñ, sobre todo kapitalistia bada, ze dirua, esaten dabe... erbixa bainā bildurtsuaua dala».

— Gaur Eibarren egoeria:

«Denpora baten euki genduan Eibarren —El piloto— bainā, gaur, Elgoibar batek, Mondrago batek, Renterixa batek emotez gaxta da, lehen lau txanponaz einda zeuan fabrikia. Gaur osterata preparaziño haundixa bihar da ta inbersiño haundixa. Produziñu tekniko ta sektore terziarioa desarrollau bihar dira».

— Gauzak konpontzeko:

«Solidaridadia bihar da, nahixa bai bainā —eiñ eiñ bihar dok—. Barruan badaukagu danok hartz txiki bat ona, ta iaber haretzek irabazten daben. «Mundu honek ezin dau segiru beti gerra ta hola-kuetan, egunen batian konponduko dira gauzak, hala dakat esperantzia nik behintzat».

1914an etorri zianak asimilau genduzan, bainā azkeneguak eztoz lelekuak asimilautako moduan asimilau ta heurak gehixau dia oiñ momentuan gu bainā.

- IRAKURTZEA IZAN DA NERE AFIZIÑO HAUNDIXA
- MONDRAGOIEN MODUAN GEUK HARTU BIHAR DOGU ERRESPONSABILIDADIA
- KAPITALISMUAN DIRUA ERBIXA BAINO BILDURTSUAUA DA
- EGUNEN BATIAN KONPONDUKO DIRA GAUZAK

— Zelan ikusten dozu gure herria gaur egun?

«Gaur egunian gauzak gaizki..., mundu guztian doiaz gaizki eh... ez... krisisa dala ta... Nik hau ekin netzan ikusten Frantzian, hemengo aldian hobeto doazela-

tzeko dirua zabaldu bihar da. Kapitalak interesik ez badao atartzen ez dau balio ezertarako. Gure aberastasuna lana da, eitxen dan guzia da, produktua da ta ez diura, dirua erreprezentaziña da».

GRABADOS
ESKULAN

Aldatze 4 behea
Tfno (943) 713103
20600 EIBAR

GURBIL

Pizzeria Telerrea
isaxi kalea-1
eibar 4-111152



San Juan 3-Telf 700899

GURE
LEKU

PINTXO GOZOAK ETA KAFE
EZIN HOBEA
ISASI-3 TFNO. 11-71-89

Ego- gain

Kafetegia
J. Etxeberria 2
Tfno 117165

GOZO
AI
RZG
IIO
AAI
KNZ

Mujika
HARATEGIA

Odolosteak Txorizoak
Bildots eta Txahal
okelak
Bidebarrieta, 12
Urkizu, 18 - Telf 120194

MINIGONA:

PARROKOAK: Kristau morala ez da «zentimetrotako» morala
FEMINISTEK: Juezek tela-zentimetroen arabera justifikatzen dute eraso

ARRAKASTA, KRITIKA ETA AITZAKI PRENDA

Inork ez luke sekula pentsatuko jantzi batek hainbeste istilu sortuko zukeenik. Noski, gona-motzari buruz ari gara hitzegiten. Orain dela 25-30 urte sortutako jantzi mota honek hasiera okerra izan zuen, kritika gogorak jasanez eta polemika handia sortuz, urte hoietararte neskak ez bait zituzten izterrak sekula erakutsi.

Gaur egun badirudi guzti hau ahaztuta dagoela, gainera dirudienez datorren udan arrakasta handia izan behar du gona-motzak. Hala ere, esan beharra dago azkenaldi honetan zenbait iskanbila sortu direla. Azkena, ez dakit parregarria ala penagarria den, ugazaba eta langile baten artean sortutakoa. Historia honako hau dugu: joan den abuztuan ugazabak neskari tontakeri batzuk esan ondoren, berataz abusatu zuen. Neskaren aitak denuntzia bat jarri zuen ugazabaren kontra, eta honek «kasaziozko errekurtsioa» presentatu ondoren. Leridako Audentziak erabaki hau hartu du: BORTXAKETA EDO MEHATXU HAUEK GONA-MOTZAREN «PROBOKAZIOAZ GERTATU DIRA. Hau da, gona-motza izan zela iskanbila guzti honen erruduna. Noski, argumentu honek kritika nabarmenak jaso ditu, eta are gehiago frogatu ahal izan denean egun horretan praktikak zeramatzala.

Gezurra dirudi gaur egun gauza hauek gertatzea. Argumentu hau egia izango balitz (ez dena noski) ulertezina litzateke gizon honen erreakzioa

adibidez hondartzara joatean eta bertan milaka gorputz erdibiluzik ikustean. Gizajoa!!!!!!


Sententziak esan zuen bezala ezin izango zukeen tentazioa jasan.

— San Andres-eko PARROKOaren ustetan «Kristau ikuspenak ez du sexualitatea joku huts bezala ikusten, norberaren atseginerako bakarrik. Gaizki ikusten du gorputzaren exhibizioa. Gizon-emakumearen maitasuna gauza handitaz hartzen du. Kristau morala ez da «zentimetrotako» morala. Kultura eta ohiturak zerikusi handia dute gai hauetan. Hala ere, gauza guzti hauek kontutan harturik, norberak ikus dezala nola jantzi edo nola erantzi».


EMAKUMEEN ASANBLADarentzat minigona «zoragarria da». Baina hainbeste gustatzen ez zaiena zera da: astakirtenen ustetan frenatu ezinezkoak diren senak bere oinetik ateratzea emakumezkoren bat minigonatan ikustean. Behin eta berriro diogu, gizonzkoek hartu, erabili eta botatzeko tresna bat garelako uste dute. Ohizko ugazaben erreprezioaz gain emakumeak izatearren jasaten duguna gehitu behar dugu. Matematikak ez dira gezurtiak: izorratuenak geu. Juezek, gizonak izanik, aringarritzat jotzen dute minifaldaz ibiltzea erasoak tela-zentimetroen arabera justifikatuz».

ZEIN DA ZURE IRITZIA MINIFALDARI BURUZ?
ZERGATIK?

ROSARIO BILBAO, 86 urte, bere gauzak: bizitza.
Nik etxean baditut gona motzak, lehen erabiltzen nituen baina orain ez.



I.G.M., 23 urte, etxeandrea
Minifaldak berdin zaizkit, nik ez ditut erabiltzen eta orduan bakoitzak ikusiko du.




EDUARDO BARCELONA, 19 urte, ikaslea
Gutxi ikusten dira, gehiago ikusi beharko ziren. Beraiek minifaldak eta guk deportzeko frakak.



AITOR IBAÑEZ, 20 urte, ikaslea
Minifaldak oso politak dira, neskak oso ongi egoten dira minifaldekin.



SECUNDINO LOIDI, 69 urte, jubilatu
Bakoitzaren modia da, andreku-meak modia eraman behar du, bere eskubide guztiak ditu horretarako.



EDUARDO RAMIREZ, 42 urte, langilea
Minifaldak oso ongi ikusten ditut, batez ere publikoarentzat. Frakak gizonzkoentzat dira.



MIRIAM, 21 urte, ikaslea
Minifaldak batzutan nahiko inkomodoak dira, erosoago sentitzen naiz gona luzean.

BIXENTA eta EUFRASIA, gazteak («juventud divino tesoro»)
Gazteak izan ezkerok guk ere eramango genituzke, oso ongi ikusten ditugu emakumeak minifaldaz jantzita.

AGENDA

Maiatza—

• KIROL ARLOA

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAK Antolatua: 9an II Urteko Kadete Promesen KRITERIUMA
MENDI IBILALDIAK C. Deportiboko MENDI TALDEAK antolatuta
6an: Belate Mendatea—Arraras
14an: Finalista Eguna—Arrate
20an: Arraras—Azpiroz Mendatea

• ARGAZKI ERAKUSKETAK

(C. Deportiboko Argazki Taldeak antolatutik)
19tik-28ra: JUANMANUEL DIAZ BURGOS (Cartagena). Udaleko Kultura Aretoan.
20tik-Ekainaren 3ra: XABI OTERO. L.K.A.ko Erakustokian.

• KULTUR SAILA

5an: ANTZERKIA. GEROA taldea «Cada noche una utopía». Arrats. 8tan Unibertsitatean

• EUSKARA BATZORDEA

Udaleko Euskara Batzordeak EUSKARAZ emango diren IKASTARO LABURRAK antolatu ditu:
SUKALDARITZA:
ORDUA: 7etatik-9etara
• Astearte-Ostegun. URKI Auzoko BIDE—ALDE Elkarte
• Astelehen-Astearte. AMAÑA Auzoko LA PERLA Elkarte

GOZOGINTZA (Reposteria): 2,30 edo 3tatik-4,30 edo 5etara

• Astearte-Ostegun. URKI Auzoko BIDE—ALDE Elkarte
• Astelehen-Astearte. AMAÑA Auzoko LA PERLA Elkarte
MATRIKULA: 1.100.— Pzta. (20 orduko ikastaroa)
OHARRA: Ikastaro hauetan parte hartzeko Auzoetako biztanleei lehentasuna emango zaie. Hau da AMAÑA eta Urki—aldean bizi direnei.

LORAZAINTZA:

NOIZ: Astearte eta ostegun 7etatik-9etara
NON: Untzagan. L.A.K.an
MATRIKULA: 500.— Pzta.

89 DIA DAS LETRAS GALEGAS, ospatzeko GALIZA ETXEAk Maiatzaren 12tik-21ra ekintza ugari antolatu ditu, Kirola, Zinea, Lehiaketak, pintura, Zeramika Erakusketak, Musika Taldeak, Galegozko Liburu Azoka, e.e., e.a., luze bat

AUDIOBISUALEN ASTEA: «KULTURAL»ean. Arrats. 8tan. Udaleko Kultura Saila C. Deportiboa-ekin batera.

8an: Astelehena. Pedro Gonzalez — SENSACIONES
9an: Astearte. Martin J. — MARRUECOS
10an: Asteazkena. Anjel Rodriguez — ITALIA (Venezia-Florentzia)
11an: Osteguna. Mari Abrego — K2
12an: Ostirala. Mikel Garaikoetxea — REFLEJOS DEL AFRICA ORIENTAL
13an: Larunbata. Javier Juanes — EUSKAL HE-RRIA, LANETIK FESTARA

XXIV. EUSKAL JAIA
KULTUR HAMABOSTALDIA

EGITARAUA

Maiatzaren 29an: Arrats. 7,30etan Udaletxeko Pleno Aretoan hitzaldia
EUSKAL OHITURAK, J. GARMENDIA LARRAÑAGaren eskutik

Maiatzaren 30ean: Arrats 7,30etan SORGIÑAK EUSKAL HE-RRIAN gaiarekin hitzaldia. Udaletxeko Pleno Aretoan.
Ekainaren 1ean: Gaueko 9etan. Unibertsitatean antzerkia GOAZ taldearekin KANPOTARRAK MAISU obra eskeiniko dute.

Ekainaren 2an: Gaueko 9etan Bertso eta Txiste afaria LAZ-KAO TXIKI eta MANUKORTAekin Bide-Alde elkarte.
Ekainaren 3an: Goizeko 10etatik eguadiako 2,30ak arte ES-KULANGINTZA ERAKUSKETA Untzaga Plazan.

— EGURREZKO TAILA
— ARTEZKO BEIRA PUZTUA
— ZERAMIKA
— DAMASKINATUA
— EGURREZKO KATEAK
— ZUMEZKO OTARRENGINTZA
— MAKRAEMA...e.a.

— Arrats. 6,30etan KOKOX, KAXAK eta KIRRIKI pailasoak Untzagan.
— Gaueko 11etan LISKER taldearekin berbena Untzagan.

Ekainaren 4an:

— Goizeko 11etan Urkizun dantza talde guztiak bilduko dira
— 11,30etan Kalejira Untzagaraino
— 12etan dantza saioak
— 12,45etan taldeak Eibarko Auzoetan zehar dantzak aurkeztuko dituzte.
— 2etan bazkaltzeko asmoz Umeen banaketa elkarte desberdinetara
— Arrats. 5etan, berriz Untzagan bilduko dira dantzatzeko
— 7etan partaide guztien agurra:
Egur: osoan Eibarko kaleetan dultzainero eta fanfarrea ibiliko dira.

ANTOLATZAILEAK: KEZKA dantza taldea, EUSKARA BATZORDEA, LANKIDE AURREZKIA.

NORK
ZER

• Koordinatzailea:

Fernando Muniozguren

• Erredakzio-taldea

Ana Aizpurua
Idoia Arrillaga
Mireia Ugarteburu
Idoia Irazola
Fernando Muniozguren

• Argazkilariak

Mikel Gorosabel
José Valderrey

• Maketazioa

José Valderrey

• Marrazkiak

Leire Astigarraga

• Inprimaketa

Antza